



**EKAINA**






**2023**



**CIVIVOX**

**JARDUERAK**



# civivoX



## CONDESTABLE | KONDESTABLEA

Kale Nagusia, 2  
Iruña 31001  
948 224 249




## ENSANCHE | ZABALGUEÑA

Nafarroako Blanca pl., 9  
Iruña 31004  
948 232 888



## ITURRAMA

Eskirotz kalea, 24  
Iruña 31007  
948 366 655



## JUS LA ROCHA | JUSLARROCHA

Maiteminduen pas., 37  
Iruña 31014  
948 132 190



## MENDILLORRI

Sarriguren kontzejuaren kalea, 3  
Iruña 31016  
948 164 114



## MILAGROSA



Jose Vila eskola. Taxoare kalea, zk.g.  
Iruña 31006  
948 292 802



## SAN JORGE / SANDUZELAI

Gortari doktoarearen plaza, zk.g.  
Iruña 31012  
948 136 400

010 Udal argibide-bulegoa  
[www.pamplonaescultura.es/eu](http://www.pamplonaescultura.es/eu)  
[www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu)

 [facebook.com/irunakulturada](https://www.facebook.com/irunakulturada)  
 @irunakulturada


Lege-gordailua: NA 2505/2009



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala



# INFORMAZIOA




## JENDEARI ARRETA EGITEKO ORDUTEGIAK

> Civivox guztiak  
Astelehenetik larunbatera  
9:00-14:00 / 17:00-21:00

Kondestable  
Igandeak  
9:00-14:00 / 17:00-21:00

Iturrama, Mendillorri, Sanduzelai  
Igandeetan irekia,  
programazioaren arabera





## INSKRIPZIOAK

> Aurre izena beharrezkoa duten jardueretan parte hartzeko hiru bide hauek batean eman beharko da izena.

- Online, Iruñeko Udalaren webguneetan ([www.pamplonaescultura.es/eu](http://www.pamplonaescultura.es/eu) eta [www.pamplona.es](http://www.pamplona.es))

- Aurrez aurre, edozein Civivox zentrotara joanda.

- Telefonoz, 010 zenbakian (948420100an, mugikor batetik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).



## SARRERA JARDUERETAN

> Aldez aurretik izena eman behar diren jardueretan QR kodea irakurrita sartuko da. Kode hori posta elektronikoa jasoko da izena ematean.

Behin jarduera hasita, ezin izanen da jardueran sartu, eta sarreraren zenbatekoa ez da itzuliko.

## PREZIOAK ETA ORDAINTZEKO ERAK

> Iruñeko Udalaren **'Udalak edo haren erakunde autonomoek antolatutako hezkuntza, kultura, kirol, gizarte edo osasun sustapeneko ikastaro eta jardueretan sartu, izena eman edo matrikulatzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen araua'** (10. araua).

Ordainketa banku-txartelaren bidez egingen da, aurrez aurre, telefonoz edo online.

## ITZULKETAK

> **Izena ematearen zenbatekoa soilik itzuliko da jarduera bere osoan edo hein batean garatzen ez bada.**

**Era berean, zenbatekoa itzuliko da, jarduera bertan behera uzten bada lekuen %75a betetzen ez den kasuetan.**

## DATUEN BASEA

> Datuak babesteko araudian ezarritakoa betez, jakitera ematen dizugu Iruñeko Udala dela arduradun datu pertsonalen tratamenduaz bezainbatean, eta baimena ematen duela datu horiek erabiltze aldera Udalak antolatutako jarduera eta ikastaroetako izen-emateak kudeatzeko. Datuak betebeharrak publikoak gauzatzean bildu dira. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko -zuzenak ez badira- eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria [www.pamplona.es/eu](http://www.pamplona.es/eu) webgunean kontsultatu ditzakezu.

# AURKIBIDEA



- > ITURRAMA BELAUNALDI ARTEKO SUSTRARIA **4 - 5**
- > SAN FERMIN HURBILETIK. HEMINGWAY IRUÑEAN: 100 URTE **6 - 9**
- > FILMMAKING FOR SOCIAL CHANGE: TRIBUAK ETA ERRITUAK **10 - 13**
- > ATERPEA EZAGUTZEN **14**
- > IGANDEETAKO MUSIKA **15**
- > SARASATEREN ONDAREA **15**
- > ERAKUSKETAK **16-17**

IRAKASLEA + ARTISTA

DATAK

ORDUTEGIA

PREZIOA

ASTEKO EGUNA



# ITURRAMA:

## BELAUNALDI ARTEKO SUSTRARIA



EKA 6 &gt;10



### BELAUNALDI ARTEKO SORMEN LANTEGIAK

#### LABORANTZA-LANTEGIA

> Bikotekako lantegi honetan, hainbat teknika ikasiko ditugu etxeko laborantzan ikasteko, eta zer-nolako zainketak behar dituzten lorontzian landatuko ditugun kimuak. Gure etxera eramateko aukera izanen dugu, hantxe ere zaintzeko.

#### ITURRAMAKO CIVIOXA

ÓSCAR IBÁÑEZ

EKA 6



17:30 - 19:00

Jende guztiarendako

4 € / bikotea. Aurrez izena emanda

#### SANFERMINAK GUZTIONDAKO!

> Sormenezko adierazpena lantzeko lantegia da, belaunaldi artekoa, Sanferminetako gaien inguruan. Apaindu zure etxea festak prestatzeko! Zatoz gurekin.

#### ITURRAMAKO CIVIOXA

TASUBINSA

EKA 8



10:00 - 12:00

Jende guztiarendako

Doan. Aurrez izena emanda

### NARRAZIOA

#### KAMISHIBAI

> Belaunaldi arteko jarduera inklusiboa da. Horrela, desgaitasun intelektuala duten pertsonen hainbat ipuin kontatuko dituzte Kamishibai teknika erabiliz. Guztiak ere ANFASko Zahartze Aktiboko Programan ari dira.

Jarduera ANFASein elkarlanean egin da.

#### ITURRAMAKO CIVIOXA

EKA 8



18:00

5 urte baino +, heldu batek lagundua

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte

Iraupena: 30 minutu



### IPUIN-KONTALARIA

#### FLOBIN MALETINEKO IPUINEKIN EU

> Flobin bere maletaren bila dator. Egia esanda berea ez, Aitaren maleta, ez, ez, ez, aitonaarena. Beno, edo bere aitonaaren aitarena, edo bere aitonaaren aitaren aitarena, Serafin birbirbirbirraitonaarena... Maleta horrek hamaika lekutako istorioak ditu, hangoak eta hemengoak. Pertsonaiez, animaliez, munstroz betetako istorio zentzugabeak... Flobin, bere berezko baldarkeriarekin, helduentzako eta txikientzako ipuin dibertigarri batzuk kontatzen saiatuko da. Arbasoek bezain ondo egingo al du?

#### ITURRAMAKO CIVIOXA

XABIER FLAMARIQUE, KONTALARIA

EKA 9



18:00

+ 3 urte baino +, heldu batek lagundua

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte

Iraupena: 30 minutu

### DANTZA-IKUSKIZUNA

#### RAÍCES

> Atena irabazi-asmorik gabeko entitatea da, eta desgaitasun intelektuala duten pertsonen garapen integrala du eginkizun, artea adierazpidetzat erabiliz, haien bizi-kalitatea hobetu nahian, haien bizitzetan laguntza pedagogiko eta artistikoa emanda.

Sormenezko proiektu honek gure komunitatean dagoen aniztasuna du abiaburu eta inspirazio-iturri. Ibilbide koreografiko eta geografiko plastiko eta emozionala da bai paisaietan, bai ohituretan, betiere bideo-proiektzioan bermaturik eta lengoia garaikidearen bidez.

#### ITURRAMAKO CIVIOXA

ATENA ARTE-KONPAINIA

EKA 10



19:00

+18

Doan. Aurrez izena emanda



# SAN FERMIN HURBILETIK

## HEMINGWAY IRUÑEAN: 100 URTE



EKA 6 &gt;28



Erakundeekin elkarlanean: ASOCIACIÓN NAVARRA DE ESCRITORES/AS- NAFAR IDAZLEEN ELKARTEA, ATENEO NAVARRO/NAFAR ATENEOA y FILMOTECA DE NAVARRA/NAFARROAKO FILMOTEKA.

Ernest Hemingway idazle iparramerikarrak 1923an bisitatu zuen lehen aldiz gure hiria. 24 urte zituen eta *Toronto Star* egunkariko erreportari lanak egitera iritsia zen Espainiara. Sanferminei, hau da, festarik unibertsalenari, zeren giroak goitik behera liluraturik gelditu zen lehen bisitaldi hartan. *The sun also rises* (*Fiesta*) eleberriaren egilearen efemeridea ospatzeko. Civivox sareak jardueraregitarau bat antolatu du:

Filmoteca de Navarra | Nafarroako Filmoteka

ATENEO NAVARRO | NAFAR ATENEOA



## HITZALDIAK ETA MAHAI INGURUAK >>

KONDESTABLE CIVIVOXA

19:00

+18

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte



### HEMINGWAY IRUÑEAN: MITOAK ETA ELEZAHARRAK >

Izan al zen Hemingway Sanferminetara etorritako lehen *giria*?

Gehiago ezagutzen dira idazleaz dabilzan istorio eta zalantzak pasadizoak, hark gure jaietan egiazki bizi izandako historia baino. Bada, saio honetan historia hori argitzen saiatuko dira lau hizlari.

Mahai inguruaren aurretik, ANFASen eta Gafas de Escribir Elkartearen "Confabuladas" irakurketa errazeko taldean ari direnek *Fiesta* liburuko zati baten irakurketa egokitua eskainiko dute.

KOLDO LARREA, ZEZENKETA-KAZETARIA ETA IDAZLEA.  
MIGUEL IZU, IDAZLEA.  
JOSÉ LUIS MARTÍN NOGALES, IRAKASLEA ETA LITERATURA-KRITIKARIA.  
MODERATZAILA: LOLA CABASÉS, KAZETARIA

EKA 6



### HEMINGWAY: IRUÑA ETA 1923KO SANFERMINAK >

Idazlea bere lehen bisitaldian liluratu zuen hiriaren oroitzapena argazkien bidez.

JUAN JOSÉ MARTINENA, HISTORIAN DOKTOREA

EKA 7



### ERNEST GAZTEA: 100 URTE EZ DIRA DEUS! EU >

Aurtengo sanferminetan Ernest Hemingway Iruñera estreinakoz etorri zeneko mendeurrena beteko da. 1923ko uztailearen 6tan etorri zelarik, artean ez zen agure bizar-zuri estereotipatua, artean ez zen itzal handiko idazle bat, Nobel sariduna; artean kazetari gazte jakin-gose bat baizik ez zen...

EDORTA JIMENEZ, IDAZLEA.  
JOSU JIMENEZ MAIA, POETA.  
IÑAKI SAGARNA, HISTORIALARIA.  
MODERATZAILA: INÉS CASTIELLA, NAFAR ATENEOKO EUSKARA ATALEKO KIDEA

EKA 12



## ANTZERKI-IKUSKIZUNA &gt;&gt;



## HEMINGWAY

> Mitoa desegin ondorengo gizakiarengan barneratuko gaitu *Hemingway* antzezlanak, haren ahulezietan, haren zaugarritasunean, noiz eta gerra- eta bidaia-zauriek, alkoholak eta botika-koktekek, hura izan zenaren itzal huts bihurtu dutenean.

Bere bizitzako azken urteetan klinika psikiatriko batean sarturik eta, bulkada suizidak eragozteko electroshock tratamenduaren mendean zegoela, Hemingway solasean arituko da bere erizainarekin, ederki nahasita bai egiazko oroitzapenak bai osasun mentalak eragindako distorsio onirikoak.

Santiagok bezala (bere zaharra itsasoan), azkenean portura iristea lortuko du trofeoa dakarrela. Arrainik handiena harrapatu du; horri esker, ospea berreskuratu du, baina urrunegi joan da. Obrak bizirik iraunen du, baina bera bere harrapakina bezain txikitua iritsi da.

## ITURRAMAKO CIVIVOXA

EGILEA: MARITZA NÚÑEZ

ZUZENDARIA: PATXI LARREA  
 ANTZEZLEAK: JULIO ALONSO, ÍÑIGO SALINERO,  
 VIRGINIA CERVERA, MANOLO ALMAGRO

EKA 15



19:30

+18

3 €. Aurrez izena emanda

## PROIEKZIOA &gt;&gt;



## PAMPLONA EN HEMINGWAY

Zuzendaria: Jesús Yagüe. Espainia, 1967 Gidoia: José Luis Castillo Puche, Jesús Yagüe. Argazkia: Diego Úbeda (Z/B). 26'. Jatorrizko bertsoia gaztelaniaz. Dokumentala

TVEk ekoiztu eta Jesús Fernández Santosek zuzendutako "La vispera de nuestro tiempo" dokumental serieko atal bat izan zen.

Nekez ikusi dira filmean Iruñeari eta sanferminei buruz dauden irudi dokumental batzuk, hots, joan den mendeko hirurogeiko hamarkadaren hasierakoak.

## FIESTA, HEMINGWAY Y LOS VASCOS

Zuzendaria: Manuel Leguineche. Espainia, 1999. Gidoia: José Manuel Alonso Argazkia: José Ramón Plaza, Lurta Nikolas (Kolorea, Z/B). 54'. Jatorrizko bertsoia gaztelaniaz. Dokumentala

Iruña, Irati, Donostia, Mundaka... Horra dokumental honetan ageri diren agertoki nagusiak, Manuel Leguineche kazetari eta idazleak ondua Ernest Hemingwayk Euskal Herrian egindako ibilbideaz. Jeanette Hohberger, Paquito Garay, Gregorio Fuentes, José M<sup>a</sup> Romera, Félix Maraña, Fernando Oyarzábal eta Teodoro Unzainen lekukotasunak ageri dira.

## NAFARROAKO FILMOTEKA

AURKEZLEA: CARLOS BASSAS (NAFAR IDAZLEEEN ELKARTEA)

EKA 28



19:30

+18

1 €

 INFORMAZIOA: [www.filmotecanavarra.com](http://www.filmotecanavarra.com)

## SUKALDARITZA-LANTEGIAK &gt;&gt;



## SANFERMINETAKO ERREZETAK

> Gure sukaldaritza tradizionalako plater ospetsuenak prestatuko ditugu, sanferminak ospatzeko behar-beharrezkoak. Gisatuak eta beste errezeta herrikori batzuk, oinarritzko produktuekin prestatuak, baina Nafarroako gastronomiak izugarri estimatutakoak.

## KONDESTABLE CIVIVOXA

FÁTIMA DIAS

EKA 22



10:00 - 12:30

15 leku

2€. Aurrez izena emanda



## SANFERMINETARAKO HAMAIKETAKOAK ETA MERENDUAK

> Zalantzarik gabe, hilaren 6ko hamaiketakoak, Txupinazoaren aurrekoa, guztiz bereizgarria da. Baina, festak bizkor eta indartsu hasteko, ezin dugu bazterrean utzi arratsalde erdiko merendu ederra, festa girokoa. Lantegian, sanferminetako janari bereizgarriak prestatuko ditugu, familiarrean edo lagunartean gozatzeko.

## KONDESTABLE CIVIVOXA

FÁTIMA DIAS

EKA 27




18:30-21:00

15 leku

2€. Aurrez izena emanda

# FILMMAKING FOR SOCIAL CHANGE: TRIBUAK ETA ERRIITUAK



## ALDAKETA SOZIALERAKO ZINEMATOGRAFIA JAIALDIAREN V. EDIZIOA. 2023. URTEA

> *Filmmaking for Social Change* jaialdiaren bosgarren edizioa Tribuetan eta Errituetan oinarrituko da.

Azken urteotan ikusten dugu inoiz ez bezalako abiaduran ari dela mundua bilakatzen masa-kultura teknologikorantz, munduko leku askotako gizartearen usadioak eta ohiturak bateratuta, kultura txikiak desagerraraziz. Aldi berean, errituen eta tribuen inguruko beste ikuskera batzuk agudo sortu eta suntsitzen dira, kontsumo azkarreko objektu edo joera bihurtuta.

📍 **KONDESTABLE CIVIVOXA**

👤 **Helduendako**

👉 **Doan. Sarrera librea edukiera bete arte**

## INAUGURAZIO JARDUNALDIA

> **Mikel Belascoain** Jaialdiko zuzendari artistikoak irekiko du aurtengo edizioa.

## ZINEMA-ESKOLA

Jaialdia Milagrosako Civivoxeko Maker Gunean aurkitzen den Zinema eskolakolan Civivox Sarea *Filmmaking for Social Change*-ekin elkarlanean landuriko zine-dokumental proiektu batekin emango dio hasiera. Ondoren, "Cairo in Motion" nazioarteko proiektuko zenbait lan proiektatuko dira.

## Yaponi. El nido de la lengua

Zuzendaria. *Beatriz Bermúdez*

Venezuelako Amazoniako wanaimapoyo herri indigenarengana hurbilduko gara. Herri horrek milaka urtez okupatu ditu lur horiek; lur gorriak, oso gorriak, burdin oxidoak eta bauxita daudelako.

📅 EKA 13  
●●●●●|●●

🕒 19:00 - 21:30

## Cairo, Motion in films

"Cairo, Motion in Films" proiektuko film labur hautatuak dira, Londresen eta Egipton egina, *London International Documentary Festival*-ekin elkarlanean. Filmak "Everyday Rituals" gaian dauden kokatuak daude, hau da, eguneroko errituetan.

## "HIRI-TRIBUAK ETA ERRIUALTASUNA" PROPOSAMEN ARTISTIKOEN INAUGURAZIOA

Ana S. Holmes, Monika Aranda, Iosu Zapata eta Luis Garcia artistak izango ditugu aretoan, jaialdiaren edizio honetarako sortutako proposamenak aurkezteko.

📅 EKA 13  
●●●●●|●●

🕒 19:00 - 21:30

## WAPIKONI: ZINEMA-SORKUNTZAKO ESPERIENTZIA INDIGENA

> Jardunaldiaren komisarioak Beatriz Bermúdez, antropologo eta errealizadore venezuelarra, eta ARAKADIA Antropología Elkarte (arakadia.org) dira.

Jardunaldiak Wapikoni erakunde du ardatz, bitartekaritzan, esku-hartzean, prestakuntzan eta ikus-entzunezko sorkuntzan ari den erakundea da gazte indigenentzat, gazte horiek dituzten arazo batzuei aurre egiteko: tasa handiak baitituzte suizidioetan, eskola-uztean eta sustantzien kontsumo neurrigabeen.

Guztira, 8 film labur emanen dira Sundance, Sao Paulo eta Raindance zinemaldietan hautatuak.

📍 **KONDESTABLE CIVIVOXA**

📅 EKA 14  
●●●●●|●●

🕒 19:00 - 21:30



## NAZIOARTEKO AUKERA

Jaialdiko gaia oso ikuspuntu ezberdinetatik jorratu duten film laburren nazioarteko aukera aurkeztuko dugu.

Nabarmentzekoa da Isabel Ferreira izanzen dugula gurekin, hots, arte garaikideko komisarioa eta Arbola proiektuko zuzendaria, eta Patrick Hazard, hau da, antropologoa, *London International Documentary Festival*-eko zuzendaria eta *Filmmaking for Social Change*ko zuzendarietako bat.

## Materia Bosque

*Materia Bosque* proiektuak berrogeitik gora bideo-sorkuntza lan bildu ditu zuhaitzen eta basoaren indar poetikoa ospatzeko.

## In light

*Italia - Bulgaria - Frantzia. 2022. 8'*

Filma genero dokumentalaren eta ikusizko kontakizunaren artean bilakatzen da. Ikuspegi paregabea eskaintzen du Senidetan Zuri Unibertsaleko bide baketsu eta gailenen inguruan.

## The Stone Guest

*Maria Fomenko. Errusia. 2018. 8'*

1924an Leninen heriotza ostean bere irudia hamaika monumentutan hilezkortu zen. Eskultura bakoitzaren "jaiotza" erritu bereziarekin batera zetorren.

## Timkat

*Ico Costa. Portugal. 2021. 12'*

Timkat, gizateria osoa salbatzeko, Kristo Jordan ibaian bataiatu zuteneko ekitaldia gogora ekartzeko ospakizuna da.

## Du côté de la côte

*Agnès Varda. Frantzia. 1958. 27'*

Udako paseoa Kosta urdinean zehar Frantziako mediterranearen irudi idilikoa margotzen duena, kontakizun garratzak bertako historia, jaiak eta biztanleak deskribatzen dituen bitartean.

📍 **KONDESTABLE CIVIVOXA**

📅 EKA 15  
●●●●●|●●

🕒 19:00 - 21:30

## GIZARTE-ALDAKETARAKO ZINEMA ETA BITXIA OSPATZEA

Jardunaldi hau *Filmmaking for Social Changeren* muinari islatzen duten hiru proiektu eskainiko ditugu. Denboraren bilakaerak ahaztutako talde eta pertsonen buruzko bi film, eta bitxia dena ospatzeko erritu kolektibo bat. Honela, Joaquim Torrents eta Natxo Leuza; Manuela Valchatova eta Raúl Goñi, biak ere Elisava Bartzelonako Diseinu Unibertsitate Eskolako irakasleak, izanen ditugu gurekin.

### No amanecerá sin ti

Quim Torrents. 2023. 53'

Quim Torrents-ek *Los Miserables* lanean oinarritutako musikalaren emanaldiaren bidez pertsonen gaitasunean oinarriturik lan egin behar dela nabarmenduta; ez, ordea, beharretik abiatuta, gizartean bazterturik dauden pertsonekin lan egiten duen proiektua aurkezten du.

Caritas. Nafarroako Unibertsitate Museoa eta Nafarroako Ganbera Opera.



### Why

Natxo Leuza. 2023. 22'

Zergatik gerra hau? Zergatik egiten digute tiro? Zergatik suntsitzen dute dena? Zergatik dut beldurra? Zergatik hil nahi gaituzte? Zergatik hainbesteko gorrotoa? Zergatik kentzen digute dena? Zergatik egin behar dut ihes?

## RARO

### Celebrar lo raro

Bartzelonako Diseinuko Unibertsitate Eskola

Arraroa ospatzea erritu kolektiboa da, hedonismoa erresistentzia-jarduera bihurtzeko. Esku-hartzeak bi ekitaldi ditu:


**1. ekitaldia:** Nire tribua, film labur bat, Z Belaunaldiko 44 neraberen artean ekoiztua, beren tribuaren beraren definizio bila, hau da, beren identitate individualaren zein kolektiboaren bila.

**2. ekitaldia:** Arraroaren Prozesioa, prozesioa hirian barna eta hiriarekin batera, dantzatzeko, abesteko eta, pertsona bakoitzaren arrarotasunarekin kaleak eraldatzeko.

Raúl Goñi & Manuela Valtchanova. Elisava

 KONDESTABLE CIVIVOXA

 EKA 16  
●●●●●●●●

 19:00 - 21:30



## INSTALAZIO ARTISTIKOAK

### EKA 13 > 25

 KONDESTABLE CIVIVOXA



### ANAKO

Horma-instalazioa, metakrilatoz eta zurez egina

Anako (emakumea Kasemm hizkuntzan) omenaldia da Tiébéléko (Burkina Fasso) Kassena etniako emakumeei. Urtero, denen artean, etxebizitzetako fatxadak margotzen dituzte sinbolismoz beteriko marrazki ikusgarriekin eta diseinu geometrikoekin, horma-arte lanak behialako motiboekin sortuta.

 MONIKA ARANDA

### ETORKIZUNAREN ZIRIBORROAK

Instalazio eskultorikoa eta soinu-duna

Holly Miranda New Yorkeko artistak eta Mikel Belascoain nafar artistak elkarlanean dihardute soinu-instalazio abstraktu batean; instalazioa, zehazki, zur birziklatuz egindako piezek osatua da, eta tribu-motiboetan zein behialako motiboetan inspiratutako hizkuntza osatzen dute.

 FÁBRICA DE ARTE NUEVO

## HIRU-TRIBUAK ETA ERRITUAK: BOTILA-FESTAK ETA TUNNING

Anna S. Holmes artista iruindarraren instalazioa-collagea, zinemaldiaren edizio honetarako sortua, eta hiri-kulturei buruzko gogoeta egiten duena, purple drank, tunning kultura edo Tik Tok joera biralak bezalako elementuekin.

 ANA S. HOLMES

### POST-PUNK

Luis Garcia artista madrildarra jaialdi honetarako sortu duen instalazioa aurkeztuko digu post-punkaren argi-oihartzunak hurbiltzeko.

 LUIS GARCÍA

### WAPIKONI

Ikus-entzunezko instalazioa

Wapikoni erakundearen bitartez herri indigenek egindako bideo klip musikalen hautaketa. Wapikoni tasa handiak baitituzte suizidioari, eskola-uztean eta sustantzien kontsumo neurrigabeari aurre egiteko lan egiten duen erakundea da.

### EGUZKI-ARGIA EURIAREN BITARTEZ

Gizateria primitiboarentzat, izena gauza izendatuaren berdina zen; horregatik, ordezkapenak metaforari bidea irekitzea beste aukerarik ez zuen izan. Gauzak aipatzearen beldurra oso aspaldikoa da. Beti kontuz ibili behar izan da; zeren, izena esaten bada, izendatua etortzeko arriskua baitago, edota haren izena madarikatzen bada, madarikazioa betetzeko arriskua.

Ez da menturatzea uste izatea, izurriteak direnean, eltxo-hodei ahaltuak deabruaren lantzat jo izana, eta eltxoa, berriz, deabrua bera.

 IOSU ZAPATA





# ATERPEA EZAGUTZEN



## BEGIRADA BAT ASILOARI ERREALTATE BIRTUALEAN

> Nafarroako Gurutze Gorriarekin elkarlanean Inoiz pentsatu al duzu nolakoak diren errefuxiatuendako zelaia? Jo ezazu errealitate horretara betaurreko birtualei esker. Haietako bat ezagutuko duzu barnetik, bere esperientzia kontatuko dizun afganistandar baten eskutik. Ikustaldiaren ondotik, Nafarroan bizi diren errefuxiatu batzuekin hitz egiteko parada izanen duzu.

### MILAGROSAKO CIVIVOXA

EKA 2

17:00-19:00

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte

## HAUR ERREFUXIATUEI BURUZKO IPUIN-KONTALARIA

> Nafarroako Gurutze Gorriarekin elkarlanean Zer sentituko zenuke zure etxea utzi behar izatean? Zatoz eta ikusi zuk zerorrek gatazkek, gerrek edo jazarpenek eraginik beren etxeetatik ihesi joan behar duten haurren egoera. Saioan, haur horien atakara eta bizi dituzten esperientziak hurbiltzeko istorioak kontatuko dira.

### ITURRAMAKO CIVIVOXA

EKA 20

18:00-19:30

Familiendako (6-12 urte)

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte

## GIZARTE-MENTORETZARI BURUZKO LANTEGIA LANTEGI PARTE-HARTZAILEA

> Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketarako Departamentuarekin elkarlanean Gizarte-mentoretza, Nafarroan familiaren laguntzarik gabe dauden gazte migranteak laguntzeko tresna.

### ITURRAMAKO CIVIVOXA

ZABALDUZ (GIZARTE EKIMENEN KOOPERATIBA)

EKA 22

18:00 - 20:00

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte



## IGANDEETAKO MUSIKAK

### EN-KANTU: MUSIKA ETA TRADIZIO ERALDATUA KONTZERTUA

> Gure komunitatean barna egindako ibilbide musikala da bertako musika tradizionalaren bidez, duintasunez zahartzen ari den tradizioa errespetuz eta maitasunez eraldatuz. Ikuspuntu musikaletik eta testuinguruari begira, beste herri batzuetako erreperorioarekin lotura musikala eta poetikoa duten gure arbasoen kantuak.

### KONDESTABLE CIVIVOXA

INTERPRETEAK: NEREA ERBITI (TRIKITIXA ETA KANTUA), PELLO RUIZ (OBOEA ETA KANTUA), IGOR SÁENZ (TXELOA), ISAAC IRIMIA (PERKUSIOA), EDUARDO ZUDAIRE (GITARRA), MARCOS ANDRÉS (GITALELEA).

EKA 11

19:00

Jende guztarendako

Doan. Sarrera librea edukiera bete arte



## SARASATEREN ONDAREA

### IPUIN MELOMANOAK AHOZKO KONTAKIZUNA

> Sarasate melomano amorratua izan zen, baina horrek ez du esan nahi eskuak meloia bezalakoak zituenik, musika sakon maite zuela baizik, hainbestearino, non, bizitza osoan musika bidelagun izan baitzuen.

Istoria batzuek bizitza osoan egiten digute lagun; bada... horixe kontatzeko tenorea da.

### KONDESTABLE CIVIVOXA. PABLO SARASATE MUSEO ARETOA

SERGIO DE ANDRÉS

EKA 24

12:00

4 urte baino +, heldu batek lagundua

Doan. Aurrez izena emanda



# ERAKUSKETAK



## 'IDAZTEN DUDAN HITZARI SOINUA DARIO' ERAKUSKETA TXIKIA

> Erakusketa txiki honetan Iruñeko Udalaren Arte Garaikideko bi lan bildu dira; biek ere hizkuntzaren eta artearen arteko harremana dute aztergai. Lanetako bat *Cuadro europeo* pintura akrilikoa da, Álvaro Negrok 1997an ondua. Eta bestea, berriz, Joan Fontcubertaren Rosetta, 1996koa. Bi lanak ikastetxez ikastetxe dabilen erakusketan dauden sarturik, Udalaren Hezkuntza Alorraren IBILTARI ekimenaren baitan, "museoa eskolara eramateko". Erakusketan Izaskun Álvarez Gainza, Carlos Cánovas, Karin Dolk eta Txaro Fontalbaren lanak daude ikusgai.

**ZABALGUNEKO CIVIVOXA**  
URR > EKA 30

## ARGAZKI-ERAKUSKETA

> Zabalguneko eta Sanduzelaiko erakusketa-guneetan ikusgai egonen dira Kondestable, Zabalguneko, Iturramako, Juslarrochako, Mendillorriko, Milagrosako eta Sanduzelaiko zentroetan 2022-2023 ikasturtean zehar emaniko argazki-lantegietako ikasleek egindako argazkiak.

**ZABALGUNEKO ETA SANDUZELAIKO CIVIVOXA**  
EKAINAREN 20RA ARTE



## CIVIVOX GUNE IREKIAK

### ARTE-PROPOSAMEN PERTSONALAK

> Catalina de Oscáriz Arte eta Lanbideetako Eskolako ikasleek ondutako lanen talde erakusketa. Lanak hainbat formatu eta teknika erabiliz egin dira: olio-pintura, akrilikoa, akuarela, marrazkia ...

**ITURRAMAKO CIVIVOXA**  
EKA 5 > ABU 31

### ERAKUSKETA-KOORDINATZAILEA ETA -KUDEATZAILEA: ANFAS

> Pintura- eta zeramika-lanen erakusketa, 2022 - 2023 ikasturtean eginak.

**JUSLARROCHAKO CIVIVOXA**  
EKA 5 > 15

### JOSUNE IRIBARREN PINTURA AKADEMIA

> Margolanak eta arte plastikoetako lanak ikusgai, 2022 - 2023 ikasturtean onduak.

**MILAGROSAKO CIVIVOXA**  
EKA 5 > 26

### SORMENEZKO KOADERNOA

> Sormenezko koadernoak ikasturteko ikasleek 2022 -2023 ikasturtean zehar, Mendillorriko Civivoxean, egindako lanen erakusketa. Ikastaro-emailea: Idoia Iribertegui, diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea.

**MENDILLORRIKO CIVIVOXA**  
EKAINAREN 15ERA ARTE

